

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakariak Burlatako adinekoen udal-zentro berria ireki du

Herriko Udalak eta Nafarroako Gobernuak batera finantzatu dituzte 600.000 euro inguruko obrak

Martes, 14 de febrero de 2012

Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakariak, Juan Carlos González Burlatako alkateak lagunduta, Burlatako Udaleko adinekoen zentro berria ireki du gaur goizean. Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean egin dute zentroa. Bi instituzioek batera finantzatu dituzte 600.000 euro inguruko obrak, bakoitzak 300.000 euro ordaindu du instalazioen kostu osoari aurre egiteko.



Barcina Lehendakaria Burlatako Udaleko adinekoen zentroaren inaugurazio-ekitaldi ofizialean

Barcina Lehendakariak guztiak zoriondu ditu zentroa abian jartzeagatik. Diseinatzeko orduan Burlatako adinekoek ere zuzenean parte hartu dute proposamenak eta iradokizunak eginez. Horiei zera opatu die: "zentroan bizitzako gauza onak partekatuz datozen poza eta bizigarriak aurkitzea". Burlatako San Blas abesbatzaren emanaldiak amaiera bikaina eman dio ekitaldiari.

Zentro berriari esker, herriko adinekoen elkarte eta taldeek jarduerak eta programak garatzeko lekua izango dute, eta jarduera soziokulturalak, aisirako eta giroa sortzeko jarduerak, prebentziorako eta terapeutikoak direnak gauzatzeko programa orokorra sortzea bultzatuko da, azken urteetan nabarmen hazi den Burlatako adinekoen taldearen erabateko garapenera eta sustapenera bideraturikoak. Herriko Gizarte Zerbitzuen txosten baten arabera, herriko biztanleen % 20,52 60 urtetik gorakoa da. Zentroko instalazioak erabili ahal izateko, ez da beharrezkoa talde bateko bazkide izatea.

Ezaugarriak

Adinekoentzako Udal Zentroak 700 m2 ditu eta Burlatako erdigunean dago, San Juan Bautista elizaren ondoan. Etxebizitzen eraikin baten beheko solairua eta sotoa hartzen dituen lokal handi batean dago. Gainera, oinezkoentzako plaza publikoa dauka, zentrorra sartzeko eta taberna-kafetegia atondo gisa erabiltzen dena. Zentroak oholeztaturiko terraza

bat du plazan.

Proiektuaren asmoa zentroa erabiliz adinekoen arteko komunikazioa eta horien auzokide eta inguruarekiko harremana lortzea izan zen. Zentroa tabernaren gune publikoak, irakurtzeko eta jokoetarako aretoak, arretarako bulegoek, komunek eta tabike mugikorren bidez hiru gela txikiagotan bana daitekeen erabilera anitzeko gela handi batek osatzen dute. Sotoan beste lau gela independente egin dira.

Burlatako Gizarte Zerbitzuen txosten baten arabera, 60 urtetik gorakoek kopuruak gora egin duenez eta Lantzeko hiribildua kaleko eraikinaren tarteko solairuan dagoen adinekoentzako udal-zentroaren instalazioko hutsegiteak direla-eta, zentro berri bat eraikitzeko beharra mahaigaineratu zen.

Zentro berriak 440 metro koadro izango ditu beheko solairuan eta 175 metro koadro sotoan. Zentroak eta tabernak sarrera bana izango dute Arropa garbitzaileen kalearen eta Maistren kalearen artean dagoen plazan.

Galería de fotos



Ekitaldian izan den jendea



Lehendakariak Burlatako zentro berriko yoga ikastaroko parte-hartzaileei egin die bisita